



**TE-1/2008 ZIRKULARRA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO ADMINISTRAZIO ETA DIRUBIDEEN ZUZENDARIARENA, ESKOLA GARRAIOARI DAGOZKION IRIZPIDE OROKORRAK HAUR HEZKUNTZAN (2. ZIKLOA), LEHEN HEZKUNTZAN ETA DBH-N (1. ETA 2. ZIKLOAK) APLIKATZEARI BURUZKOA.**

**1. PUNTUA.- HAUR HEZKUNTZA (2. ZIKLOA), LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH-KO (1. ZIKLOA) IKASLEAK.**

Honako baldintza hauek betetzen dituzten ikasleek erabili ahal izango dute Eskola Garraioa:

- Ikastetxe publiko batean matrikulatuta egotea.
- Ikaslea dagokion ikastetxera joatea, ikastetxeen eremu-antolamenduaren arabera.
- Ikastetxea, gutxienez, 2 kilometrora izatea. Distantzia hori ikaslearen etxetik ikastetxera oinez egiteko moduko bideari jarraituz neurtuko da.

Dagokion Udalak luzatutako agiria eskatuko da oinezko distantzia zein den zehazteko, eta aurkezterik ez balego, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak izendatutako eran egingo da neurketa.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kontratatu duen eskola-garraioa erabiltzeko aukerarik ez denean, ikasleek diru-laguntzak jasoko dituzte, garraiorako banan-banako diru-laguntzen bitartez.

**2. PUNTUA.- DBH-KO (2. ZIKLOA) IKASLEAK.**

Honako baldintza hauek betetzen dituzten ikasleek erabili ahal izango dute Eskola Garraioa:

- Ikastetxe publiko batean matrikulatuta egotea.
- Ikaslea dagokion ikastetxera joatea, ikastetxeen eremu-antolamenduaren arabera.
- Ikastetxea, gutxienez, 4 kilometrora izatea. Distantzia hori ikaslearen etxetik ikastetxera oinez egiteko moduko bideari jarraituz neurtuko da.
- 18 urte baino gehiago ez izatea dagokion ikasturteko abenduaren 31n.

Dagokion Udalak luzatutako agiria eskatuko da oinezko distantzia zein den zehazteko, eta aurkezterik ez balego, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak izendatutako eran egingo da neurketa.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kontratatu duen eskola-garraioa erabiltzeko aukerarik ez denean, ikasleek diru-laguntzak jasoko dituzte, garraiorako banan-banako diru-laguntzen bitartez.

**3. PUNTUA.- JANTOKI ETA GARRAIO ZERBITZUEN ARTEKO BATERAEZINTASUNA EGUERDITAN.**



Jantoki-zerbitzua duten ikastetxeetan, oro har, ez da garraio-zerbitzurik izango eguerditan, non eta jantokiak hartu ezin dituen garraiorako eskubidea duten ikasle guztiak, edo eskola-jantokiei buruzko urteroko zirkularrak aurreikusitako gorabeherak ematen diren.

#### **4. PUNTUA.- LEKU LIBREAK.**

Garraio zerbitzuaren erabilpena ahalik eta onena izan dadin, ibilbideren batean leku librerik izanez gero, zirkular zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten ikasleek ere erabili ahalgo dituzte lekuok, aldi baterako. Dena den, zonifikazioaren baldintza bete beharko dute betiere, eta zirkular honetako 1. eta 2. puntuan adierazitako hezkuntza-mailetako ikasleak izan. Aukera honek, hala ere, inoiz ez du ibilbidea eta geralekuak aldatzea ekarriko.

Leku libreok aldi baterako erabiltzeko baimena eskatzen den ikasturtera mugatuko da, eta berau eman ala ukatzea ikastetxeko zuzendariaren esku egongo da. Zuzendariak, betiere, dagokion Lurralde Ordezkaritzari jakinarazi beharko dio hori, kontrolaren ondorioetarako. Emandako baimena edozein unetan ezeztatu ahalgo da, antolakuntza arrazoiak direla kausa edo/eta leku librea goian zehaztutako baldintzak betetzen dituen ikasleren batek erabili behar badu.

Leku libreak aldi baterako erabiltzeko baimena jasotzeak ez dio ikasleari ekarriko jantokiko kuota murriztuaren onuradun izatea, ezta jantokiko beste edozein laguntzaren onuradun izatea ere.

#### **5. PUNTUA.- IRISGARRITASUNA.**

Ibilgailu egokitua erabiliko da zirkular honen barruko hezkuntza-mailetako ikasleen mugikortasun-baldintzek hala eskatzen duten ibilbideetan.

Eskola-garraioko ibilgailu egokituak erabili ahal izateko, ikasleak honako baldintza hau bete beharko du:

- Ikastetxea, gutxienez, 500 metrora izatea. Distantzia hori ikaslearen etxetik ikastetxera oinez egiteko moduko bideari jarraituz neurtuko da.

#### **6. PUNTUA.- GERALEKUAK**

Geraleku bakarra egongo da bizilagun askorik ez duten herrietan, linea erregularreko ohiko geralekuan edo markesinak kokaturik dauden tokietan.

## 7. PUNTUA.- ESKOLA GARRAIOKO LAGUNTZAILEAK.

### 7.1. AUTOBUSEKO LAGUNTZAILEAK.

Oro har, eskola-garraioko laguntzaileen zerbitzua antolatuko da 443/2001 Errege Dekretuak, Eskolako eta Adingabekoen Garraioaren segurtasun-baldintzei buruzkoak, ezarritako baldintzak betetzen dituzten ibilbideetan.

Hau da, eskola garraioko laguntzaile bat jarriko da:

- Garraiatutako ikasleen %50a 12 urtetik beherakoak badira.
- Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetako ikasleak direnean.

Ez dira lau urtetik beherako 15 ikasle baino gehiago autobus berean eramango, non eta ibilbidea bikoizteko ibilgailurik jartzeko aukerarik ez dagoen, edota zerbitzua antolatzekeko arrazoiek horretarako bide ematen ez duten.

Autobus berean 4 urtetik beherako 15 ikasle baino gehiago eramaten diren salbuespenezko kasuetan, laguntzaile bat kontratatuko da 15 ikasleko edo 10 edo gehiagoko ikasle-talde bakoitzeko.

Eskola-garraioko laguntzaileek zerbitzu bakoitzean emango duten laguntza-aldia, berriz, honako hau izango da: ibilbidea ikasleak jasotzeko lehen geldialdian hasten denetik, eramandako azken ikasleen eskolak hasi bitartekoa, eta eskolak amaitzen direnetik ikasleak joaten diren azken geldialdira bitartekoa.

Laguntzaileek honako betebeharrak hauek dituzte, besteak beste (adierazte-aldera jartzen dira, eta ez zerrenda mugatu gisa):

- 1.- Lehen geralekutik (hor sartuko baita) hura amaitu arte egitea ibilbidea. Autobusera igotzen laguntzea umei, eta, batez ere, zailtasun bereziak dituzten umei; euren dagozkien aukietan esertzen direla eta gidariari ez diotela traba egiten ziurtatu. Betiere, umeen ongizateaz arduratuko da. Autobusekoak ez direnak ez sartzeaz arduratuko da, eta itzuliko ibilbidean umeetariko bakoitza bere geralekuan jaisten dela egiaztatuko beharko du. Umei ez zaie itxiko autobusez edo geralekuz aldatzen, Zuzendaritzaren berariazko baimenik ez bada. Autobusetik ikastetxe barruraino lagunduko ditu umeak eta, ikastetxeko arduradun batekin utziko ditu ikasleak.
- 2.- Umeak euren gurasoek edo horiek izendatutakoek jasotzen dituztela ziurtatu beharko du, eta, hala ezin bada, umeari ez dio utziko autobusetik jaisten eta gurasoekin komunikatzen ahalegindu beharko du. Bestalde, ikastetxeari eta enpresari ere jakinaraziko die kontua, eta azken horiek argituko diote egin beharrekoa.
- 3.- Autobusa erabil dezaketen umeak zehazten dituen zerrenda jasoko du, eta zerbitzua zerrenda horretako umeek bakarrik erabiltzen dutela kontrolatuko du.
- 4.- Ibilbidean jazotako aldaketa edo gorabehera oro (geralekuen aldaketa, ordutegiak ez betetzea...) jakinarazi beharko dio ikastetxeko zuzendariari eta bere enpresari.
- 5.- Ibilgailuko segurtasun-mekanismoak eta botikinaren kokapena jakin beharko ditu.
- 6.- Ibilbidean, ikasleren batek ondoezik edo antzekorik izanez gero, eragindako umeak artatuko ditu eta, hala bada, larrialdietako mediku-zerbitzuei deituko die.
- 7.- Segurtasuna bermatzeko, poltsak, bizkar-zorroak eta antzekoak leku egokietan, sarrerak eta pasabideak trabatu gabe, jartzen direla egiaztatuko du.



8.- Eskola-garraioaren zerbitzua hobetzeko litezkeen datuak bildu eta kontrolatzeari dagokionez, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako garraio-arduradunarekin arituko da lankidetzan.

9.- Ibilgailuaren matrikula eta autobus-konpainia egiaztatu beharko ditu, eta ibilbideari esleitutakoak ez badira, ikastetxeko Zuzendaritzari eta bere enpresari jakinarazi beharko die.

10.- Zerbitzua nolakoa den kontuan izanik, zerbitzua ematen den bitartean, laguntzaileak ezin izango du erre umeen aurrean, eta jarrera egokia gorde beharko du.

11.- Ikasleren batek jarrera zaila edo okerra erakutsiz gero, laguntzaileak lasaitasunez erantzungo du, eta inoiz ez du jokaera oldarkor edo indarrezkorik erabiliko. Gertatutakoaren berri emango dio ikastetxeari, hark neurri egokiak har ditzan.

12.- Bidean, autobusetik umerik egotzi ez dadin arduratuko da.

13.- Erdiko edo atzeko zerbitzu ateen ondoko jarlekuan eseriko da.

14.- Zerbitzua egiteko beharrezko den beste edozein funtzio.

## **7.2. ESKOLA-GARRAIOKO LAGUNTZAILEAK PATIOKO ZEREGINETAN.**

Eskola-garraioko laguntzaileak patrioko zereginetarako kontratatzearen helburua eskola-garraioko ibilbideen antolamendu logistikoa erraztea baino ez da.

Eskola-garraioko laguntzaileek, patrioko zereginetan dihardutenean, honako betebeharrak dituzte, besteak beste (adierazte-aldera jartzen dira, eta ez zerrenda mugatu gisa):

1.- Ibilgailuetatik ateratzen direnetik eskolak hasi arte umeen segurtasunaz arduratuko da. Halaber, eskola-eguna amaitu ostean, umeak jagongo ditu patio edo jolastokian, dagozkien ibilgailuak hartzen dituzten arte.

2.- Umeek ikastetxeko patio edo jolastokian egon beharko dute, eta umeek espazio hori ez dutela uzten ziurtatu beharko dute laguntzaileek.

3.- Arriskutan sar ez daitezen ziurtatuz, umeen ongizatea jagongo dute, hain justu ere, joko arriskutsu, borroka eta antzekoei dagokienez, betiere, jolastokian direla kontrolaturik eta begiradapean izanik.

4.- Ikastetxeko botikinaren kokapena jakin beharko dute, eta ikastetxeko jolastokian dela umeren bat ondoezik gertatzen bada, artatu egin beharko dute.

5.- Umeak aurrean direlarik, behar diren modu eta itxura onak gordeko ditu, eta jarrera egokia erakutsiko.

6.- Jolastokian dela jazotako edozein nahaste edo gorabehera jakinarazi beharko dio ikastetxeko Zuzendaritzari eta bai bere enpresari ere.

7.- Ikasleren batek jarrera zaila edo okerra erakutsiz gero, laguntzaileak lasaitasunez erantzungo du, eta inoiz ez du jokaera oldarkor edo indarrezkorik erabiliko. Gertatutakoaren berri emango dio ikastetxeari, hark neurri egokiak har ditzan.

8.- Zerbitzua egiteko beharrezko den beste edozein funtzio.

## **8. PUNTUA. IRAUNALDIA**

Zirkular hau indarrean egongo da, geroko beste zirkular batek edo maila bereko edo handiagoko arau batek aldatzen ez duen bitartean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 22

ADMINISTRAZIO ETA DIRUBIDEEN ZUZENDARIA

Izp.: Virginia Galarraga Varela